



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dosier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailak 28**

**Vitoria-Gasteiz, 28 de julio de 2020**

## Lehendakaritza

### GOBERNUAK 680.000 €-KO LAGUNTZAK ONARTU DITU COVID 19 PANDEMIAREN ONDORIOAK ARINTZEKO

- **Laguntza batzuk GKEek eta nazioarteko erakundeek osasun-larrialdiari begira egindako dei humanitarioei erantzuteko dira**

Gobernu Kontseiluak Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren zuzeneko 6 dirulaguntzen sorta onartu du beste hainbeste GKE eta elkarterentzat, eta helburua dute Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzea.

Gaur onartutako laguntzak 680.000 euro ingurukoak dira, eta hauexei zuzenduko zaizkie:

- **Terrorismoaren Biktimen Elkarte (AVT), Terrorismoaren Biktimen Kolektiboak (COVITE) eta Pakearen Aldeko Terrorismoaren Biktimen Elkarte (VITEPAZ).** Covid-19ak sortutako alarma-egoeraren eta hari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz kalte ekonomikoa jasan edo arazo psikologikoak larritu zaizkien terrorismoaren biktimei laguntzeko. Laguntzak guztira: 57.000 euro.
- **Arrigorriagako Udala.** Landaederraga hilerrian lurzati bat egokitu eta, hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko islamdar komunitateek beren sinesmen eta errituen arabera hilobiratzeko modua izan dezaten. Orain arte, EAEko musulmanen komunitateak Erkidegoaz kanpora egin ohi zituen hilobiratzeak, baina alarma-egoera eta, ondorioz, mugimendua mugatu direla tarteko, hori ezinezkoa zen. Laguntza guztira: 44.572 euro.
- **CEAR-Euskadi.** Laguntza honen bidez, ezohiko neurriak jarri nahi dira martxan EAEn nazioarteko babesak eskatu duten pertsonentzako aldi baterako harrera-zentroetan koronabirusa zabaldu ez dadin, eta behar diren neurriak ezarri nahi dira pertsona horiek beren prestakuntza-jardueran eta gizarteratzean jarrai dezaten. Laguntza CEAR-Euskadik kudeatuko du, eta ACCEM, Gurutze Gorri, MPDL eta Nueva Vidari zuzenduko zaizkio. Guztira: 50.000 euro.

Gainera, pandemiak eragindako osasun-larrialdiaren aurrean nazioarteko erakunde eta GKEek egin dituzten nazioarteko deialdiei erantzunez, Gobernu Kontseiluak elkarte hauentzako laguntzak ere onartu ditu:

- **Save The Children.** Balkanetako migrazio-bidean zehar kokatutako herrialdeetan ume errefuxiatu eta migratzaileen premia larrienei aurre egiteko. Laguntza guztira: 200.000 euro.

- **UNICEFF.** Bosnia eta Hertzegovinako ume errefuxiatu eta migratzaileentzako osasun mentaleko zerbitzuak zabaldu eta emateko. Laguntza guztira: 200.000 euro.
- **Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Komisarioa (ACNUR).** Grezian errefuxiatu eta aterpe eskatu duten herritarrei laguntza emateko; zehazki, laguntzak Atenas eta Tesalonikan bizi diren 502 bidaiderik gabeko adingabe, errefuxiatu eta aterpe-eskatzailei bizileku duina eta premia biziko ondasunak hornitzeko dira. Laguntza guztira: 125.000 euro.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### EUSKO JAURLARITZAK *OPEN DATA* KULTURA SUSTATZEKO DATU IREKIEN IDEIA ETA APLIKAZIO ONENENTZAKO 26.000 EUROKO SARIA EMANGO DU

- “*Open data*” sarien bidez, aberastasun eta balio soziala sortzeko datuak berrerabili eta kontsumituko dituen pertsona-kolektiboa sortzen lagunduko da
- Datu irekiak berrerabiltzeko ideiarik onenei eta zerbitzuak, azterlanak, bistaratzeak edo webeko edo mugikorretako aplikazioak hornitzen dituzten bi proiekturik onenei emango zaie saria

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Open data*” sarien deialdia onetsi du, datu irekiak berrerabiltzeko 4 proposamen onenak aitortzeko. Zerbitzua, azterlana, bistaratzea, web-aplikazioa edo gailu mugikorretarako aplikazioa sortzeko ideia deskribatzen duten bi **ideiarik onenak** sarituko dira, bai eta zerbitzuak, azterlanak, bistaratzeak, web-aplikazioak edo gailu mugikorretarako aplikazioak ematen dituzten bi **proiektu onenak** ere, horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako datu irekien katalogoetako datu-multzoak erabiltzen dituztenak.

### 26.000 EURO

“*Open data*” sarien hirugarren edizio honetan, Eusko Jaurlaritzak ezagutzera eman nahi du euskal administrazio publikoen datu irekien katalogoak badaudela, horien ahalmena, datu irekien berrerabilera eta horien ondoriozko zerbitzuen sorrera sustatu nahi du eta irekitzeko ahalegin gehiago egiteko kontsumitzaileek gehien eskatzen dituzten datuak zehaztu nahi ditu. Hala, aberastasun eta balio soziala sortzeko datuak berrerabili eta kontsumituko dituen pertsona-kolektiboa sortzen lagunduko da.

Sari horiek hiru foru-aldundien eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburu-udalen lankidetzak dute; izan ere, sarien epaimahaian parte hartzen dute eta hautagaien esku jartzen dituzte beren datu irekien katalogoak.

Eusko Jaurlaritzak 26.000 euro bideratuko ditu lau proposamen onenak ezagutzera:

- Euskadiko datu irekiak berrerabiltzeko **ideia deskribatzen duen proiekturik onena**: 5.000 euro
- Euskadiko datu irekiak berrerabiltzeko **ideia deskribatzen duen bigarren proiekturik onena**: 3.000 euro
- **Euskadiko datu irekiak berrerabiltzeko proiekturik onena**: 10.000 euro
- **Euskadiko datu irekiak berrerabiltzeko bigarren proiekturik onena**: 8.000 euro

Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Pertsona fisiko eta juridiko interesdunek beren proiektuak elektronikoki aurkeztu beharko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez.

## **EPAIMAHAIA**

Hautagaitza guztiek erabili beharko dute, gutxienez, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako foru-aldundien edo Bilboko, Donostiako edo Vitoria-Gasteizko udalen katalogoetako datu-multzo bat. Epaimahaia zazpi pertsonak eratuko dute, horietako bakoitza Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru-aldundien eta Euskadiko hiru hiriburu-etako udalen ordezkari legez; epaimahaiak aurkeztutako proiektuen baliagarritasuna balioetsiko du, etekin ekonomikoa lortzeko duen ahalmena, balio soziala eta publikoa sortzeko duen ahalmena eta haren bideragarritasuna eta erabiltzeko erraztasuna.

## **OPEN DATA EUSKADI**

[Open Data Euskadi](#) Euskadin sektore publikoaren informazioa berrerabiltzea sustatzen duen datu irekien ataria da. Zerbitzu horrek datuak zuzenean eskaintzen ditu, transformaziorik eta interpretaziorik gabe, hirugarrenek horien bidez zerbitzuak sortu eta, horrela, administrazio gardena eta irekia lortu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak proiektu hori 2010ean jarri zuen abian, eta mundu-mailan datu irekien lehen atarrietako bat izan da. Gaur egun, 6.000 datu-multzo baino gehiago ditu, balio ekonomiko eta sozial handikoak; besteak beste, estatistikoak, geografikoak, administratiboak, ingurumenekoak, turistikoak eta meteorologikoak.

## Ogasun eta Ekonomia

### **ALBERTO ALBERDI EKONOMIA, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILBURUORDEAK KARGUA UTZI DU, EUSKO JAURLARITZAN 38 URTE EGIN ETA GERO ERRETIRATU EGIN DELAKO**

Gobernu Kontseiluak kargutik kendu du gaur Alberto Alberdi Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordea. Eusko Jaurlaritzan 38 urte lanean eman ondoren kargua utzi du, erretiratu egin baita.

Euskal Herriko Unibertsitatean Ekonomia Zientzietan lizentziatua eta Ekonomia Zientzietan doktorea da Alberdi, eta 1982an hasi zen ekonomialari lanetan Eusko Jaurlaritzan. Bederatzi urte geroago, Plangintza eta Ekonomia Ikasketetako zuzendari bihurtu zen. 1993an Azterlan Zerbitzuko Ekonomialari buru kargua hartu zuen, eta bi urte geroago Lehendakaritzan Ekonomia Gaietarako aholkulari eta zuzendari kargua, 2004ra arte. Urte horretan Industria, Merkataritza eta Turismo Sailera pasatu zen, eta bost urtez aritu zen bertan sailburuordearen aholkulari gisa. 2009an Ogasun eta Ekonomia Sailera itzuli zen, Azterlan Zerbitzuko Ekonomialari Buru gisa, 2016an Pedro Azpiazu Ogasun eta Ekonomiako sailburuak Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuorde izendatu zuen arte.

## Hezkuntza

### 28,5 MILIOI EURO 2020-2021 IKASTURTEKO UNIBERTSITATE-BEKETARAKO

- **2019-2020 ikasturtean 10.781 euskal ikasle izan dira unibertsitate-beken onuradun**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran onartu du 2020-2021 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzetarako deia egiten duen agindua. Deialdi honetan, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak jasotzen dira. Orotara, Hezkuntza Sailak 28.560.000€ milioi euro bideratzen ditu unibertsitate-beketarako, gorago aipaturiko bi laguntza-lerroetan:

**1.- 2020-2021 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko beka:** 28, 46 milioi euro

Beken deialdi hau, 28.460.000 euroko diru-kopuruarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten ikasleentzat da, 2020-2021 ikasturtean Autonomia Erkidego honetan edo Estatuaren gainontzeko tokietan kokatuta dagoen edozein zentrotan ondorengo ikasketak egin behar badituzte:

- Graduko unibertsitate-titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak
- Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak
- 25 urte baino gehiagokoak unibertsitatean sartzeko prestakuntza-ikastaroak, unibertsitate ez-presentzialetan emandakoak
- Goi-mailako arte-ikasketak.

Berrikuntza nagusia da aurten eskabidea eta bekaren tramitazio osoa elektronikoa izango dela. Horretarako, ikasleek baliozko ziurtagiri elektronikoa bat izan beharko dute. BakQ ziurtagiri elektronikoa ateratzea gomendatzen da, oso erabilerraza dena eta erabiltzeko euskarri berezirik behar ez duena.

Beste berrikuntza garrantzitsu bat da dagoeneko ez dela eskatzen gutxieneko batez besteko nota master ofizialerako beka izateko. Era berean, jaitsi egin da matrikula partziala duen beka izateko eskatzen den gutxieneko kreditua: 35 kreditu izatetik 30 kreditu izatera igaro da.

Bestalde, beste bi kenkari ekonomiko gehitu zaizkie Covidek lan-arloan eragindako pertsoneri. Era berean, salbuespen berri bat sartu da errendimendu akademikoan, Covidek sortutako egoeraren ondorioz eskatutako gutxienekoa gainditu ezin izan duten ikasleentzat.

Bestalde, eta iaz egin zen bezala, Euskaditik kanpora unibertsitatez besteko goi-mailako ikasketak burutzen ari diren ikasleak ere matrikula osagaiaren onuradun izango dira aurten ere.

2019-2020 ikasturte honetan, 10.781 euskal ikaslek eskuratu dute unibertsitateko beka orokorra, bere osagaietakoren batean edo zenbaitetan, hala nola:

- Matrikula osagaia: matrikularen zenbatekoa prezio publiko ofiziala izango da, 2020-2021 ikasturtean zerbitzu akademikoetarako ezarritakoa.
- Ikaskuntzari laguntzeko prozesuari lotutako zenbateko osagarri aldakorra: unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiteko ikasleek eskuratu behar dituzten liburuen eta materialaren gastuak arintzea da osagai honen helburua.
- Hiriarteko joan-etorriak: osagai honen helburua da ikasleari laguntzea familia-egoitzatik ikastetxerako (Euskadi barnean) garraioaren gastua arintzen.
- Probetxu akademikoa: ikasleen lana saritzen du osagai honek, baldin eta ikasleek aurreko ikasturtean gutxienez 60 kredituko matrikula egin bazuten, eta 2019-2020 ikasturtean emaitza akademiko onak izan badituzte.
- Egoitza: ikasleek, ikasketak direla-eta, egoitzaz aldatzeko egin behar dituzten gastuak ordaintzen laguntzen duen osagaia da
- Familia-errentari lotutako oinarrizko zenbatekoa: ezohiko osagaia erabiliko da ekonomia-egoera bereziki zaila duten pertsonen ikasten laguntzeko.

**2.- Beren ezaugarri fisikoak edo psikikoak direla-eta, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak:** 100.000 euroko diru-kopurua

Diru-laguntza hauek ematen dira mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleek euren ikasketa-zentrorra iristeko garraiobide publikoak, egokituak izanik ere, ezin badituzte erabili; edo garraiobide publikoak erabili ahal izan arren, beste pertsona baten laguntza behar badute. Azken 2019-2020 ikasturte honetan 10 unibertsitate ikaslek eskuratu dute laguntza hau Euskadin.

Berrikuntza nagusia da ikasle bakoitzari eman beharreko gehieneko zenbatekoa handitu egiten dela, 10.000 €-tik 12.000 €-ra.



## Hezkuntza

### 14,38 MILIOI HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK KONTRATATZEKO LAGUNTZATAN

- **2019-2020 ikasturtean, deialdi honen bidez, 219 itunpeko ikastetxe pribatuei laguntza eman zitzaien 587 EAE kontratatu ahal izateko.**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren Agindu bat onetsi du gaurko bileran. Agindu honen bidez, hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleak eskolaratzen dituzten itunpeko ikastetxeei, 2020-2021 ikasturterako Hezkuntza-laguntzako Espezialistak kontratatzekeo beharra dutenei, laguntzak emateko deialdia egiten zaie.

14.382.500 euroko diru-kopurua duen deialdi honen helburua da, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak integratzeko programa gehiago garatzea; horretarako, itunpeko ikastetxeei Hezkuntza-laguntzako Espezialistak kontratatzekeo diru-laguntzak emango zaizkie. Hezkuntza-laguntzako Espezialistek ezgaitasun fisiko, psikiko edo jokabide-nahasmendu larria duten ikasleen jarduera-planetan parte hartzen dute, autonomiarekin, eta ingurunerako nahiz eskola-curriculumerako irisgarritasunarekin zerikusia duten premietan esku hartuz.

Deialdi honen arabera laguntza jaso dezaketen hezkuntza premia bereziak curriculumerako sarbiderako eta ondorengoekin erlacionatutako gaitasun egokitzailetarako dira:

- Zainketa pertsonala.
- Jokaera eta komunikazioa.
- Trebetasun motorrak.
- Autogidatzea.
- Komunitatearen erabilera.
- Osasuna eta segurtasuna.

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskubidea Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe pribatuen titularrek izango dute, baldin eta eskaera aurkezteko unean itundutako unitateak badituzte; betiere, Berritzeguneko aholkularien diagnostikoz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dauzkaten ikastetxeak izango dira, ikasle horiek normal integratzea eta eskolako jardueretan eskola-orduen barruan parte hartzea errazteko laguntzaileen beharra dutenak.

Hezkuntza Sailak bere egiten du elbarritasunari edo portaeraren arazo larriei lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen inklusioaren aldeko konpromisoa. Bere bizilekutik hurbil dagoen hezkuntza-ingurune batean egoteko eta, batez ere, parte hartzeko elbarritasun fisikoa, psikikoa eta sentsoriala edo portaeraren arazo larria duten haur edo gazteen eskubidea bermatzeko, ezinbestekoa da ikastetxeek profesional espezializatuak izatea, ikasle elbarrituen

autonomiari eta irisgarritasunari lotutako premiak direla-eta egin beharreko esku-hartzean espezializatutako laguntza-pertsonala, besteak beste.

Itunpeko ikastetxeetan ikasi eta parte hartzeko oztopoak kendu ahal izateko bitartekoak jarri nahi ditu deialdi honek. Horrela, kalitateko hezkuntza-erantzun egokia, haien premiei egokitua eta ohiko ingurunean, bermatu ahal izango zaie elbarritasun psikiko edo nahaste autista batengatik autonomiarekin mugitzeko muga inportanteak dituzten ikasleei, gurpil-aulkia erabili edo ez;

2019-2020 ikasturtean, deialdi honen bidez, 219 itunpeko ikastetxe pribatuei laguntza eman zitzaizen 587 EAE kontratatu ahal izateko hezkuntza-premia bereziko ikasleekin autonomia, irisgarritasuna, ezintasuna eta portaera-nahaste larriak duten 1.661 ikasleekin lantzeko.

## Hezkuntza

### 8,7 MILIOI EURO IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZA ETA HOBEKUNTZARAKO, DOKTORATU AURREKO KONTRATUEN BIDEZ

- **2020-2021 ikasturtean, 381 euskal ikertzailek izango dute Doktorego aurreko kontratua deialdi honi esker; horietatik 279 egun indarrean diren kontratu berritzeak izango dira, eta 102 berriz laguntza berriak**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2020-2021 ikasturtean Doktoratu aurreko Programan laguntza berriak deitu eta lehendik zeudenak berritzen dituen Agindua, doktore ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzara zuzenduak.

8.700.864 euroko diru-kopuru globala duen deialdi honek, ikertzaileen prestakuntza sustatu nahi du, Doktore titulua lortu ahal izan dezaten, eta kalitatezko ikerketa zientifikoari lotutako gaitasun eta trebetasunak eskuratu ditzaten, Doktoretza Programa baten barruan. Deialdiak bere barne hartzen du bai beka berriak ematea, eta baita aurreragoko deialdietan emanikoak berritzea ere. Zehazki, kopuru horretatik 2.149.000 euro laguntza berriak emateko bideratuko dira, eta gainerako 6.551.864 euroak lehendik indarrean zeudenak berritzeko, era honetan banaturik:

Lerroak:	Total
Laguntza berriak (ikerketa orokorrean)	2.104.200 €
Laguntza-berritzeak (kerketa orokorrean)	6.529.584 €
Laguntza berriak (berariazko ikerketan)	44.800 €
Laguntza-berritzeak (berariazko ikerketan)	22.280 €
<b>Total</b>	<b>8.700.864 €</b>

### Doktoratu aurreko kontratuak

Laguntza hauen onuradun izango dira, unibertsitate lizentziatura edo gradu bat izanik tesi-proiektua egingo duten pertsona fisikoak, betiere egoitza EAEn dutenak. Laguntza horiek doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte, urtebeteko iraupenarekin. Kontratu hori bere ikerketa garatuko duen aplikazio-zentroarekin izenpetuko du ikertzaileak. Kontratuaren xedea izango da proiektu zehatz eta berrietan ikerketa-lanak egitea, lanaldi osoko erregimenean. Kontratuak beste hiru alditan ere luzatu ahal izango da (gehienez 48 hilabete elkarren segidakoak), laguntza berrituz gero.

Laguntza hauek jasotzeko aplikazio-zentroak, eta beraz, ikertzaileekin kontratuak sinatuko dituztenak, unibertsitate edo ikerketa erakundeak izango dira, publiko zein pribatuak, I+G-an ahalmen eta jarduera ezaguna dutenak. Zentro hauek izan dezakete egoitza EAEn (A modalitatea), Estatuan (B modalitatea), edo atzerrian (I modalitatea). Hirugarren modalitate honen kasuan, ikertzaile onuradunak Zientziaren Euskal Fundazioarekin, Ikerbasquerekin,

sinatuko du kontratua. Kontratu horretan osagarri bat ere ezartzen da atzerriko zentrorra joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko urtean.

### **Neutronika eta partikulen azelerazioa**

Datorren 2020-2021 ikasturterako deialdi honetan eutsi egiten zaio –eta irmotu egiten da- neutronika eta partikulen azelerazioan ikerketa bultzatzeko apustuan iaz irekitako lerro berriari. Ikerketa arlo hau interes bereziko da egun Europako Batasunean eta bereziki Euskadin, balio estrategiko handia baitu EAEko zientzia, teknologia nahiz industriaren etorkizunerako. Gainera, Euskadiko I+G+b garatzeko ere abagunea eskaintzen du. Gure erkidegoko zientzia-komunitatea arlo honetan sendotzea eta areagotzea lehentasunezko helburua da, Europako Batasunak ESS Lund espalaziozko neutroi iturriaren inguruan ezarri dituen helburu zientifikoak indartzeko.

Bestalde, ikerketa orokorrari dagokion ohiko lerroan, ezagutza arlo hauetako ikerlanek dute lekua: Oinarrizko Zientziak; Bizitza eta Osasun Zientziak; Ingeniaritzak, Teknologia eta Arkitektura; Gizarte Zientziak eta Humanitateak.

### **381 ikertzaile onuradun**

2019-2020 ikasturte honetan, 381 euskal ikertzaile izan dira doktoratu aurreko laguntza hauen onuradun, iazko deialdiari esker: 102 ikertzaile, onuradun berriak izan dira (horietako bat neutronika eta partikulen azelerazioaren berriazko lerroan), eta gainerako 279 ikertzaileek laguntza berri egin dute.

Doktoratu aurreko programa hau ikerkuntzako giza baliabideak sustatzeko politikan sartzen da, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Planean (2019-2022koan) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planean; ildo horretatik, programaren helburua da lanbide-jarduera ikerkuntzara bideratu nahi duten goi-mailako tituludunen berriazko prestakuntza bultzatzea. Halaber, zientzia eta teknologia gaietan lekukoa hartuko duen belaunaldi berriaren prestakuntza sustatzea ere bada programaren xedea.

## Hezkuntza

### **EUSKO JAURLARITZAK 8,47 MILIOI BIDERATUKO DITU ESKOLA-GARRAIOKO IBILBIDEEN KONTRATAZIORAKO DATOZEN BI IKASTURTEETAN**

- **Hezkuntza Sailak datozen bi ikasturteetarako eskola-garraioko 108 ibilbide kontratatzeko lehiaketa publikoa irekiko du**
- **Ikastetxe publikoetako 21.564 ikaslek erabiltzen dute egunero Euskadin eskola garraio zerbitzua 2019-2020 ikasturte honetan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 8.471.325 euroko kopurua bideratzea Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako eskola-garraio zerbitzua kontratatzeko, datozen bi ikasturteetan (2020-2021 eta 2021-2022).

Zehazki, Hezkuntza Sailak egun Euskadin dauden eskola-garraioko 573 ibilbideetatik 108 aterako ditu lehiaketara. 108 ibilbide horietatik 56 Bizkaian daude, 31 Araban eta 21 Gipuzkoan.

Ibilbide hauen esleipenerako lehiaketan parte hartu nahi duten garraio enpresek, zerbitzua garatzeko beharrezko den administrazio-baimena izan beharko dute – Bidaiarien Errepideko Garraioari buruzko 4/2004 Legean aurreikusia-, 443/2001 Errege Dekretuak eta 894/2002 Errege Dekretuak (aurrekoa modifikatzen dena), Eskola-garraioko eta adin txikikoen garraiorako segurtasun baldintzei buruzkoak, ezartzen dituen gutxienerako baldintzak bete.

#### **21.564 ikasle garraiatu**

Eskola-garraioko zerbitzu osagarriak hezkuntzarako sarbidearen unibertsaltasuna bermatzen du. Hezkuntza Sailak kudeatzen duen eskola garraioa erabiltzeko eskubidea dute bizilekutik ikastetxera 2 kilometro edo gehiagoko distantzia duten ikasleek, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan. Gutxienerako distantzia hori 4 kilometro edo gehiagokoa izan beharko da DBHko bigarren zikloan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan, eta 500 metrokoa besterik ez mugikortasun urriko ikasleen kasuan.

Egun, 2019-2020 ikasturte honetan, ikastetxe publikoetan ikasten ari diren 21.564 ikasle garraiatzen dira egunero Euskadin, orotara 259 ikastetxe publikori zerbitzua ematen dieten 573 ibilbideen barnean.

## Hezkuntza

### **1.070.824 EURO SINDIKATUETAKO LIBERATUENTZAT**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, hartu du Irakaskuntza Pribatuko 12 liberatu sindikalen eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ikastoletako 7aren kostua finantzatzeko erabakia 2019/2020 ikasterterako, 1.070.824 euroko zenbateko osoan.

Diru kopuru horretatik, 371.867 euro bideratuko dira 2019ko iraila-abendua eperako, eta 698.957 euro 2020ko urtarrila-abuztua eperako. Diru-laguntza hau, jarduera sindikalerako liberatua dagoen irakaslearen ikastetxera bideratuko da.

2004ko azaroan liberatu sindikalen finantziazioaren inguruko bi hitzarmen sinatu ziren: EAEko Irakaskuntza Pribatu Arauturako bata, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Ikastoletarako bestea, Administrazioa eta sektoreko sindikatu nahiz patronal esanguratsuenekin.

Hitzarmen hauen xedea da, ikastetxe pribatuentzat irakasleak jarduera sindikalerako liberatzeak duen kostua finantzatzea. Akordio horietan jasotakoaren arabera, Administrazioak bere gain hartuko du, gehienez, Euskadiko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako lan hitzarmenaren eremuko 12 liberaturen kostua, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Ikastoletako lan hitzarmeneko 7 liberaturena, kasu honetan ere gehienez.

## Hezkuntza

### **243.269 EUROKO DIRULAGUNTZA IKASTETXEENTZAT HITZARTUTAKO UNITATEAK MURRIZTEAK ERAGINDAKO KALTEAK ARINTZEKO**

Hezkuntza Sailburuaren proposamenez, EAEko Administrazioaren eta Irakaskuntza Pribatuko erakunde patronalen eta sindikatuen artean 1997ko ekainaren 5ean hartutako Akordioa aplikatuz - 2018/2019 eta 2019/2020 ikasturteetan hitzartutako unitateak murrizteak eragindako ikastetxeei buruzkoa, alegia- Gobernu Batzordeak ikastetxeei 243.269 euroko dirulaguntza ematea erabaki du gaur.

### **120.000 EURO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN ARTEAN KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako ikasleen artean 2020-2021 ikasturtean kultura ekintzailea sustatzeko diru-laguntzatarako deia egiten duen Agindua.

120.000 euroko diru kopurua duen deialdi hau itunpeko ikastetxeei zuzendua dei eta ikastexe honetan 2020-2021 ikasturtean Euskadin Erdi mailako edo Goi mailako heziketa zikloren batean 2. mailan dauden ikasleen artean kultura ekintzaile sustatzea du helburu.

## Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

### “EUSKADI TURISMO BONUA”-REN ETA “EUSKADI BONODENDA”-REN AGINDUAK ARGITARA ATERA DITU TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK

- **620.000 bonu kaleratuko dira Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egindako 5,7 milioi euroko ekarpenarekin**
- **Bonuak 5, 10 edo 20 euroko deskontuetan oinarritzen dira modalitate desberdinetan: turismoa, ostalaritza eta merkataritza**

Turismo, Merkataritza eta Ostalaritzako sailburu Sonia Pérez Ezquerrak, Gobernu Kontseiluaren aurrean, gaur aurkeztu ditu aginduak, turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreetara bideratutako bonuak martxan jartzen dituztenak, COVID19 pandemiaren ondorioak arintzen laguntzeko. Bonuak Aldundiekin, hiriburueta Udalekin eta EUDELekin koordinatuko dira, eta izen hauek hartu dituzte: **“Euskadi Turismo Bonua”** eta **“Euskadi Bonodenda”**.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saitetik **estrategia bat** planteatu da **2 alditan: erresistentziakoa eta suspertzekoa**. Erresistentziako aldiaren ondoren –15 milioi euroko laguntzak onetsi ziren horretarako– suspertzeko aldia dator, batetik, sustapen-ardatz bat duena turismoa eta merkataritza bultzatzeko hainbat kanpainaren bitartez. Eta, bestetik, sustatu egin dira gainera **laguntza desberdinak sektorea dinamizatzen laguntzeko, besteren artean, saltokiak modernizatzen, ekintzailetzarako, Hirigune, bulego teknikoei laguntzeko eta abar**.

Gaur onetsitako aginduak aurrerapauso bat gehiago dira suspertzeko aldi honetan eta helburutzat dute **krisiak gogorren jo dituen sektoreak suspertzea, baita familietan kontsumoa aktibatzen laguntzea ere, haiek ere krisiak erasan dituela kontuan hartuta**. Merkataritzaren, jatetxeen, ostalaritzaren eta turismoaren jardura dinamizatzen formula bat da, tokiko eremuan nahiz eskualdekoan izango dituen ondorioak bultzatuz.

Bonu horiek 18 urtetik gorako pertsona fisikoek erosi ahal izango dituzte, Euskadin bizi direnek edo beste leku batzuetatik etorrira bisitatzen gaituztenek –turismoko bonuen kasuan– enpresak atxiki ondoren ezarritako epean.

Aginduek jasotzen dutenez, **bonuak deskontu-bale ereduan oinarritzen dira. Merkataritzan –“Euskadi Bonodenda”– modalitate bakar bat dago: 10 euroko deskontuak 30 euroko gutxieneko erosketetan**. Lau bonura arte eskuratu ahal izango dira, guztira 40 euroko deskontuarekin gehienez. Merkataritzaren eremuko mikroenpresetara, enpresa txikietara eta ertainetara daude zuzenduta.

**Turismoan eta ostalaritzan –“Euskadi Turismo Bonuak”– 3 modalitate daude:**



-Lehenengo eta bigarren modalitateak **saltokietara, ostalaritzako eta jatetxeetako enpresetara eta interes turistikoko jardueretara** daude zuzenduta, eta 5 edo 10 euroko deskontuak dira, hurrenez hurren, 20 edo 40 euroko gutxieneko erosketetarako.

-Hirugarren modalitatean 20 eurokoa izango da deskontua, gutxienez 60 euroko erosketetarako **alojamendu turistikoetako establezimenduetan**.

Gehienez 2 bonu eskuratu ahal izango dira establezimendu bakoitzeko, eta 40 euroko guztizko deskontua egingo da gehienez pertsonako.

“**Euskadi Turismo Bona**” Euskadiko mikroenpresetara, eta enpresa txiki eta ertainetara dago zuzendua, turismoarekin eta ostalaritzarekin lotutakoetara, besteren artean:

- Alojamentuko establezimenduak.
- Gida turistikoak.
- Zerbitzu turistikoak antolatu eta bitartekaritza-lana egiten duten enpresa turistikoak.
- Jatetxeak eta ostalaritzako establezimenduak.
- Naturako kirol-jardueretako enpresak, besteak beste, turismo aktiboa eta abenturakoa.
- Garraio turistikoko enpresak.
- Ondare kulturala, gastronomikoa eta naturala ezagutzera ematen dituzten enpresak.
- Aisiako zentroak.

Establezimendu eta enpresa guztiak, merkataritzaren, turismoaren eta ostalaritzaren sektoreetakoak, **atxiki ahal izango dira programara** aginduak **argitaratu ondorengo 3 asteetan** eta eskuratu ahal izango dute, **plataforma teknologiko** baten bidez, deskontu-bonu kopuru zehatz bat; jaulkitako bonuen kopuruaren eta atxikitako enpresen kopuruaren arteko erlazioak ezarritakoa izango da kopurua.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ekarpen hauek egingo ditu: **2 milioi euro turismoarentzat eta 3,7 milioi euro merkataritzarentzat; guztira 5,7 milioi euro**, eta gainerako erakundeek ekarpenak ere gehituko dira. **Guztira 620.000 bonu banatuko dira, 250.000 deskontu-bonu turismoan eta ostalaritzan, eta 370.000 merkataritzan**, lurralde bakoitzaren pisu demografikoaren arabera.

“Erronka nabarmena izan da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarentzat, jasota ez zeuden partidaz ari baikara, eta % 15 inguru da turismoko eta merkataritzako zuzendaritzen guztizko aurrekontutik. Baina argi daukagu ahalegin guztiak egin behar ditugula une hauetan, kontuan hartuta sektoreak inoiz baino gehiago behar gaituela eta administrazioek erantzun azkarrak eta eraginkorrek eman behar ditugula” azaldu du sailburuak.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA ARAUTZEKO DEKRETU BERRIA ONARTU DU, OSAERA BERRITUZ ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK EGOKITUZ**

- **Legealdian egindako ebaluazioaren ondoren, kide kopurua murriztu da, berdintasun ikuspegia txertatu da organoaren osaeran eta funtzionamendu arauak eguneratu dira**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, bere gaurko saioan, Euskararen Aholku Batzordea arautzeko dekretu berria onartu du, organoaren osaera berrituz eta funtzionamendu arauak egokituz. Egokitzapen hau Legealdian egindako ebaluazioaren ondorioa da, eta horren helburua da Batzordearen egitekoak hobeto bete ahal izatea. Dekretua berriaren bidez, kide kopurua murriztu da, berdintasun ikuspegia txertatu da osaeran eta funtzionamendu arauak eguneratu dira. Euskararen Aholku Batzordearen helburua da hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen “ahaleginak eta ekintzak aztertzea, bideratzea eta koordinatzea”.

Aldaketa honek orain dela bi urte egindako gogoetan du jatorria. 2018. urtean Euskararen Aholku Batzordea arrazionalizatzeko eta hobetzeko ebaluazioa egin zen, eta organoaren funtzionamendua, osaera eta araudia egokitzeko beharra antzeman zen. Dekretu berrian egindako aldaketa nagusiak Batzordearen funtzionamendua hobetzeko eguneratze teknikoaren aldetik egindako moldaketak dira. Besteak beste, honako aldaketa hauek egin dira: batzordekide kopurua murriztu, berdintasun ikuspegia txertatu edota funtzionamendu-arau batzuk aldatu.

Batzordekide kopuruari dagokionez, orain arte 59 kide izan ditu Batzordeak, eta aurrerantzean 26 izango ditu. Hala, Eusko Jaurlaritzaren baitako ordezkari batzuk desagertu dira osaeratik (HABE, EITB, Funtzio Publikoa...), eta beste bat sartu da (UEMAko ordezkari bat). Horrekin batera, kanpoko adituen kopurua murriztu da; hala ere, batzorde-ataletan gizartearen parte-hartze zabala izango da.

Hortaz, hemendik aurrera honako hauek osatuko dute Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoa:

- **Presidentea:** Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria.
- **Presidenteordea:** Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.
- **Hizkuntza Politikako sailburuordea.**
- **Hezkuntza sailburuordea.**
- **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) zuzendari nagusia.**
- **Euskaltzainburua.**
- **Hiru foru-aldundietako ordezkari bana, gutxienez zuzendari mailakoak.**
- **Euskal Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkaria.**
- **Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkaria.**

- Hamabost kide, hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artean hautatuak:
  - Legebiltzarrak izendatutako bost kide.
  - Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak izendatutako hamar kide. Euskararen hizkuntza-komunitatearen lurraldeetako ordezkariak izatea begiratuko da.
  - Batzorde Osoaren bilkuretara, eztabaidatzekoak diren gaietako adituak eraman ahal izango dira. Aditu horiek hitza izango dute, baina ez botorik.

Era berean, Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoa osatzerakoan, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango dela bermatuko da. Ondorio horretarako, ordezkariak orekatua izango da baldin eta sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak lortzen badu. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauak neurriak edo bestelakoak hartuko dira.

Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak batzorde-atal bereziak sortzea erabaki dezake gai zehatzei buruzko lanak eta txostenak egiteko. Batzorde-atal berezien egiteko orokorrak izango dira: Batzorde Osoari laguntzea beren eginkizunetan; Euskararen Aholku Batzordeak eskatutako oinarrizko azterlanak eta txostenak egitea.

Dekretu berriak, halaber, Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren egitekoak eguneratzen ditu. Honako hauek izango dira:

- Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-normalizazioari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea.
- Euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Eusko Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei.
- Hizkuntzari loturiko gaietan eskumena duten aginte publikoen jardura koordinatua bermatzeko neurriak proposatzea.
- Indarrean dagoen euskara sustatzeko plan nagusiaren garapenari eta betetzeari buruzko txostenak egitea.
- Batzorde Osoaren nahiz batzorde-atal berezien jardura-arauak ezartzea.
- Euskararen Aholku Batzordearen urteko memoria onartzea.
- Batzorde-atal bereziek proposamenak eta txostenak eginez gero, horiek aztertzea.
- Legeek edo erregelamenduek aitortutako beste edozein egiteko.

Dekretu berria onartu den arren, indargabetzen den urriaren 16ko 176/2007 Dekretuaren arabera indarrean dauden Euskararen Aholku Batzordeko kideen izendapenak behin-behinean jarraituko dute, harik eta Euskararen Aholku Batzordeko kide berriak izendatzen diren arte. Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak sei hilabeteko epea izango du Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kide berriak izendatzeko.

## Presidencia

### EL GOBIERNO APRUEBA AYUDAS POR 680.000 € PARA PALIAR LAS CONSECUENCIAS DE LA PANDEMIA COVID 19

- **Algunas son para atender a llamamientos humanitarios de ONG y organismos internacionales ante la emergencia sanitaria**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy un paquete de 6 subvenciones directas de la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación a otras tantas ONG y asociaciones, cuyo objetivo común es paliar las consecuencias de la pandemia producida por la Covid-19.

Las ayudas hoy aprobadas suman cerca de 680.000 euros e irán dirigidas a:

- **Asociación de Víctimas del terrorismo (AVT), Colectivo de Víctimas del Terrorismo (COVITE), y Asociación de Víctimas del Terrorismo por la Paz (VITEPAZ)** para la asistencia de aquellas víctimas del terrorismo que hayan podido sufrir un perjuicio económico o un agravamiento de sus problemas psicológicos, como consecuencia del Estado de alarma y de las medidas de contención provocadas por la Covid-19. Total ayudas: 57.000 euros.
- **Ayuntamiento de Arrigorriaga** para el acondicionamiento de una parcela en el Cementerio de Landaederraga para que las comunidades islámicas vascas puedan realizar enterramientos de acuerdo con sus creencias y ritos. Hasta ahora, la comunidad musulmana vasca venía realizando sus enterramientos en cementerios de fuera de Euskadi, lo que con el Estado de alarma y la consiguiente limitación de movimiento resultaba imposible. Total ayuda: 44.572 euros.
- **CEAR-Euskadi.** La ayuda va dirigida a la puesta en marcha de medidas extraordinarias que eviten la propagación del coronavirus en los centros para la acogida temporal en Euskadi de personas solicitantes de protección internacional, así como para la implementación de las medidas necesarias para que estas personas puedan mantener su actividad formativa y de inserción. La ayuda será gestionada por CEAR-Euskadi e irá dirigida también a ACCEM, Cruz Roja, MPDL y Nueva Vida. Total: 50.000 euros.

Además y atendiendo a los diferentes llamamientos humanitarios realizados desde organismos y ONG internacionales ante la emergencia sanitaria provocada por la pandemia, el Consejo de Gobierno ha aprobado ayudas a:

- **Save The Children** para atender a las necesidades más urgentes de los niños y niñas refugiadas y migrantes en los países situados a lo largo de la línea migratoria de los Balcanes. Total ayuda: 200.000 euros.
- **UNICEF** para ampliar la prestación de servicios de salud mental y apoyo psicosocial a los niños y niñas refugiadas y migrantes en Bosnia y Hercegovina. Total ayuda: 200.000 euros.
- **Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Refugiados (ACNUR)** para la asistencia a la población refugiada y solicitante de asilo en Grecia. En concreto, la ayuda permitirá proveer a 502 menores no acompañados, refugiados y solicitantes de asilo que viven en Atenas y Tesalónica de una vivienda digna, así como de artículos de primera necesidad. Total ayuda: 125.000 euros.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO VASCO PREMIARÁ CON 26.000 EUROS LAS MEJORES IDEAS Y APLICACIONES DE DATOS ABIERTOS PARA IMPULSAR LA CULTURA *OPEN DATA*

- Los premios “*Open data*” contribuirán a crear un colectivo de personas que reutilice y consuma los datos para generar riqueza y valor social
- Se premiarán las dos mejores ideas de reutilización de datos abiertos y los dos mejores proyectos que suministren servicios, estudios, visualizaciones o aplicaciones web o móviles

